

# **BILBAO RÍA 2000REN FINANTZAKETA- ETA FUNTSAK ERAKARTZEKO ESTRATEGIAREN DEFINIZIOA**

*Posted on 19/03/2026 by Naider*

Bilbao Ría 2000k **finantzaketa- eta funtsak erakartzeko estrategia** definitzeko prozesua abiatu du, Bilbo metropolitarran hiri-eraldaketarako jarduerak indartzeko helburuz.

Erakundeak, hiri-berroneratze prozesuak erakundeen arteko adostasunean oinarrituta gidatzeko sortuak, erronka du finantzaketa-aukerak identifikatu eta aktibatzekeo testuinguru batean, non **Europako, estatuko eta autonomia-erkidegoko tresnek** gero eta garrantzi handiagoa duten proiektu estrategikoen garapenean.

Lana finantzaketa-programa desberdinetako aukerak identifikatzea eta Bilbao Ría 2000k bakoitzean izan dezakeen rola aztertzea da. Analsi horretatik abiatuta, erakundearen jarduera-ildoekin eta esku hartzen duen lurralde-eremuekin lerrokatutako **proiektuen esparru estrategikoa** definitzen da.

Prozesu honetan, Bilbao Ría 2000k Naidarren laguntza du; honek **metodologia eta lurralde-  
ezagutza** eskaintzen ditu proiektuen portafolioa egituratzeko eta finantzaketa-deialdi eta -tresnetan duen posizionamendua orientatzeko.

Proiektua Afi (Analistas Financieros Internacionales) erakundeko adituekin elkarlanean garatzen da, **analsi ekonomiko-finantzarioan eta proiektuen egituraketan** ikuspegi espezializatua txertatuz. Horri esker, proposamenen bideragarritasuna eta finantzaketa-tresnetara egokitzapena indartzen dira.

Emaitza gisa, oinarri estrategiko bat definitzen da, erakundeari finantzaketarako sarbidea antolatzen laguntzen diona, **lankidetzak eta parteneriatuak** aktibatzen dituen eta hiri-eraldaketako proiektuak bultzatzeko gaitasuna indartzen duena, Bilbo metropolitarrako garapen ekonomiko eta sozialean eragina izanik.

